

2/11

irizpena

NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZA
POLITIKA

Legearen Aldaketarako Legearen
Aurreproiektuari Buruzkoa

Bilbo, 2011eko otsailaren 28an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euzkadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena^{2/11}

I. AURREKARIAK

2011ko urtarrilaren 31n Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren idazkia jaso da, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politika Legearen Aldaketarako Legearen Aurreproiektuari buruzko txostenaren eskaera eginda, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoari helduta.

Horren kopia berehala Batzordearen osoko bilkuran esku hartutako kide guztiei bidali zitzairen, euren proposamenak eta iritzia i gorri eta horiek lan-batzorde egokiari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezarritakoa aintzat hartuta.

Gizarte Garapenerako Batzordeak 2011ko otsailaren 14an bilera egin du, Irizpenaren Aurreproiektuari buruzko lehenengo proposamena eztabaidatu ahal izateko. Egunean bertan, Batzordeak hurrengo Irizpen Proiektua onetsi zuen, eta hori 2011ko otsailaren 28ko Euskadiko EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio aho batez onetsi dadin.

II. EDUKIA

Legearen Aurreproiektuari buruzko testua modu honetan bereizita dago: Zioen Azalpena, 6 Artikulu eta Azken Xedapen bat.

Zioen Azalpena

Bada, adierazi den bezala, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legea onetsi denetik epe zehatz bat igaro ostean, eta 2006ko abenduaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1006/123/EB Zuzentarauan xedatutakoa oinarri hartuta, barne-merkatuan ezarritako zerbitzuei buruzkoan (Zerbitzuen Zuzentarra), hain zuzen, euskal arauketaren xedapen horretan zenbait aldaketa egiteko beharrezana ageri da; izan ere, 58. artikuluan 3. atalean, 59. artikuluan 4. atalean, 60. artikuluan eta Legearen Eranskinean xedatu-

takoa ez da egokitu Zerbitzuen Zuzentarauan ezarritako printzipioetara, jarduera garatzeko betekizunen ezarpenari dagokionez, nola edo hala zerbitzuen eskaintza askearen printzipioaren betepena eragotzita.

Modu paraleloan, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen Eranskinaren aldaketa, orobat, Estatuaren oinarrizko arauketara egokituko da, hots, Industriaren Erregistro Integratuaren Erregelamendua onetsi duen maiatzaren 7ko 559/2010 Errege Dekretura, Zerbitzuen Zuzentaria aplikatzeko aldatu dena.

Bestalde, VIII. Tituluaren IV. Kapitulua *“Ikuskapena eta Zehapena”* artikulua batzuk (Ikuskapenaren 102. artikulua 5 eta 7. artikulua eta Arau-hausteen 106. artikulua elikagaigintzari begira) aldatu egingo dira, aurretik ezarritako bestelako arauketekin bat egin ahal izateko. Bereziki,

- Ikuskapenari buruzko 102. artikulua 5 eta 7. artikulua ezarritako 5 eguneko epea 15 egunera luzatuko da, batik bat, epe hori oso laburra delako, eta modu horretan, ardogintzari eta mahastizaintzari buruzko arauketekin bat egingo du, Ardogintzaren eta Mahastizaintzaren Antolamendurako maiatzaren 7ko 5/2004 Euskal Legearen 42.2 artikulua kontuan izanda.
- Segurtasun juridiko handiagoa egiletsi ahal izateko, Elikagaigintzaren arau-hausteei buruzko 106. artikulua aldatu da, zuzenbidearen aurkakotzat jo daitezkeen, eta horrenbestez, arau-hausteak diren jokabideak edo ez-egiteak zehaztasun handiagoarekin jasotzeko. Testuinguru horretan, Ardogintzaren eta Mahastizaintzaren maiatzaren 7ko 5/2004 Euskal Legez gain, elikagaigintzaren inguruan aplikatu beharreko bestelako arau-hausteei buruzko arauak daude. Hain zuzen ere:
 - Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bategina onetsi duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua eta bestelako lege osagarriak.

- Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Euskal Legea.
- Kontsumitzaileen defentsarako eta nekazaritzaren nahiz elikagaigintzaren ekoizpenerako arau-haustekak eta zehapenak arautu dituen ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretua.

Xedapenen edukia

- **Lehenengo artikuluan** Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 58. artikuluan (Kalitatearen eta jatorriaren bereizgarriak) 3. atalaren idazketa berria jaso da.
- **Bigarren artikuluan** Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 59. artikuluan (Eskubideak eta betebeharrak) 4. atalaren idazketa berria jaso da.
- **Hirugarren artikuluan** Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 60. artikuluan (Erregistroak) idazketa berria jaso da, eta aipatutako artikuluan izenburua aldatu egin da, izen berri hau hartuta: 60. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroa.
- **Laugarren artikuluan** Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 102. artikuluan (Ikuskapena) 5 eta 7. atalak aldatu dira, epeei dagokienez, horiek laburregiak izateagatik.
- **Bosgarren artikuluan** Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 106. artikuluan (Elikagaigintzaren arau-haustekak) idazketa berria jaso da.
- **Seigarren artikuluan** Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren

abenduaren 23ko 17/2008 Legearen Eranskinaren idazketa berria jaso da.

Azken xedapenean Legearen indarraldia azaltzen da.

III. OHARRAK

III.1 Ohar Orokorrak

Euskadiko EGABren mende ezarritako Legearen Aurreproiektuaren xedea Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legea aldatzea da.

2/11 *j*

Halaber, egin nahi den alderdi batzuen aldaketa barne-zuzenbidean (Zerbitzuen Zuzentaraua) Europako Parlamentuak eta Batzordeak barne-merkatuaren zerbitzuei buruz 2006ko abenduaren 12an igorritako 2006/123/EB Zuzentaraua jasotzearen ondoriozko zuzeneko emaitza izan da, batik bat, artikulua hauek, hala nola, Legearen 58. artikuluan 3. atala “Kalitatearen eta jatorriaren bereizgarriak” (III. Kapituluaren barnean hartuta. Nekazaritzaren eta Elikagaigintzaren Kalitatea), 59. artikuluan 4. atala “Eskubideak eta betebeharrak” (IV. Kapituluaren barnean hartuta. Nekazaritzari eta Elikagaigintzari buruzko Produktuen Eraldaketa), 60. artikulua “Erregistroak” (IV. Kapituluaren barnean hartuta. Nekazaritzari eta Elikagaigintzari buruzko Produktuen Eraldaketa) eta Eranskina ez direlako egokitu Zerbitzuen Zuzentaruaren ezarritako printzipioetara, jarduera garatzeko betekizunen ezarpenari dagokionez, nola edo hala zerbitzuen eskaintza askearen printzipioaren betepena eragotzita.

Zerbitzuen Zuzentaraua Lisboako Estrategiaren esparruaren barruan onetsi zen, Europar Batasunean benetako merkatu bakarra erdiesteko helburuarekin, erkidegoko pertsona fisiko eta juridiko nazionalen koka-penerako askatasuna eta zerbitzuen eskaintza barnean hartuta. Horretarako, askatasun horiek eragozten dituzten lege- eta administrazio-hesien ezabaketa aurreikusi da, baldin eta horiek beharizanaren, proportzionaltasunaren eta ez-bereizkeriaren betekizunak betetzen ez badituzte. Gisa berean, administrazioaren sinplifikazioaren printzipioa, prozedurak

eta izapideak bide elektronikotik egitea, horiek egiteko leihatila bakarrak kokatzea, kontsumitzaileen eskubideak sendotzea zerbitzuen erabiltzaileak diren aldetik eta horien kalitatea bermatzea ezarri da, bai eta Estatu kideen arteko administrazio-lankidetzari eustea ere.

Betebehar hori bete ahal izateko, Estatuako legegileak, oinarrizko izaerarekin, ereduzko esparru juridiko horizontala adostu zuen, Zerbitzuen Zuzentarauan jasotako printzipioak barnean hartuta (Estatuaren azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzkoa). Hain zuzen ere, lege horretan autonomia-erkidegoetan arauketaren egokitzapen-prozesua egiteko irizpide erkideak zehaztu dira.

Bada, 17/2009 Legearen Aitzinsolasean adierazi den bezala, arauketa-esparrua modu esanguratsuan aldatu ahal izateko, ez da nahikoa zerbitzuei buruzko gaur egungo eta etorkizuneko arauketa arautu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, ezpada beharrezkoa da zerbitzuen eskuragarritasunari eta erabilerari buruzko arauketa osoa ebaluatzea, Lege horretan ezarritako printzipioetara egokitu ahal izateko.

Hori da, hain zuzen, zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko Legea egokitzeko lege ezberdinak aldatzeko Estatuaren abenduaren 22ko 25/2009 Legearen xedea. Lehenbizi, Zerbitzuen Zuzentarauan jasotako xedapenen ondorioz ukitutako Estatuaren lege ezberdinak aldatu dira; eta bigarrenez, zerbitzuen sektorea neurri handi batean dinamizatu eta gure Europako bazkideekiko lehiakortasun-irabaziak erdietsi ahal izateko, arauketa egokiaren printzipioak Zuzentaruaren bidez ukitu gabeko sektoreetara hedatu da.

Estatuaren oinarrizko arauketara egokitzeko testuinguru horretan, hain zuzen, Industriaren Erregistro Integratuaren Erregelamendua onetsi duen maiatzaren 7ko 559/2010 Errege Dekretua onetsi da. Horrez gain, hori Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Euskal Legearen Eranskinaren aldaketa egiteko kontuan izan behar da.

Hemendik aurrera, euskal legegile autonomiko eskudunak lege mailako arauketa printzipio orokor horietara egokitu beharko du, irakurri Parla-

mentuaren eta Batzordearen abenduaren 12ko 2006/123/EB Zuzentzura egokitzeko lege ezberdinak aldatzeko etorkizuneko Euskal Legea, barne-merkatuan ezarritako zerbitzuei buruzkoa, Batzorde horrek igorritakoa (1/10 Irizpena, 2010eko azaroak 24).

Bestalde, "Ikuskapena eta Zehapena" izenburuko VIII. Tituluaren IV. Kapituluaren (102. artikulua. Ikuskapena eta 106. artikulua. Elikagaigintzaren arau-haustek) artikulua batzuk aldatuko dira aurretik ezarritako bestelako arauketekin bat egiteko, bereziki:

- Ardogintzaren eta Mahastizaintzaren maiatzaren 7ko 5/2004 Euskal Legea.
- Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren testu bategina onetsi duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua eta bestelako lege osagarriak.
- Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzkoa abenduaren 22ko 6/2003 Euskal Legea.
- Kontsumitzaileen defentsarako eta nekazaritzaren eta elikagaigintzaren ekoizpenerako arau-haustek eta zehapenak arautu dituen ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretua.

Aurretik azaldutakoa gorabehera, Batzordearen ustez Legearen Aurreproiektu hori egokia eta beharrezkoa da. Hala ere, gure iritziz beharrezkoa da horren edukiaren inguruko zehaztapen zehatzak egitea.

III.2 Ohar Zehatzak

Zioen Azalpena

Hona hemen laugarren paragrafoaren edukia:

"102. artikuluan 5 eta 7. ataletan ezarritako gaur egungo idazkia dela eta, ikuskatzaileek erabakitako kautela-neurriak zehapen-espe-

dientea abian jartzeko organo eskudunak lau egun baino epe laburragoan baieztatu, aldatu edo kendu beharko ditu. Epe laburregi horren betepena praktikan oso zaila edo ezinezkoa da betetzea. Horregatik, beharrezkoa da epe hori 15 egunera luzatzea, eta horrela, ardogintzaren eta mahastizaintzaren Antolamenduaren 7ko 5/2004 Legearen 42.2 artikulua araberatik ezarritako arauketarekin bat egitea.

Batzorde horren ustez, komenigarria da laugarren paragrafo hori ezabatzea edo ibilgetze-epe hori 15 egun baino epe laburragera jaitea. Gainera, nekazaritzako produktu galgarrien kasuistikaz jabetu da. Batik bat puntu hauek direla medio:

2/11 

1. Bada, 4 eguneko epea 15 egunera luzatzeko arrazoiari dagokionez, organo eskudunak zehapen-espeditentia abian jartzeko 4 eguneko epearen betepena laburregia da, eta praktikan oso zaila edo ezinezkoa da hori betetzea; gure egunotan ezinezkoa da hori onartzea, hots, ezagutzaren kudeaketaren garaian, baliabideetan eta teknologietan aurrera egin dugula uste izanda. Gure ustez, ez da egokia epea luzatzea, ezpada, murriztea, edo gutxienez, horri eustea.
2. Kautela-neurriak direla kontuan izan behar dugu, eta horrenbestez, horien erabilera tasatu egin behar da, eta ahal den eperik laburrenean aplikatu behar dira, betiere organo eskudunak adierazpena egin arte. Izan ere, horren izaera ez-ohikoa eta behin-behinekoa da.
3. Modu horretan, maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen 42.2 artikuluan ezarritako epera doituko da (hain zuzen ere, hilabete hori ez dago islatuta Zioen Azalpenean), eta artikulua oso hori jarraian azaldu da.

42. artikulua. Kautela-neurriak.

1. *Salbuespenez, egokitzat jotzen duenean antzemandako egitateen jarraitutasuna edo errepikapena saihesti ahal izateko, ustez lege honetan edo erkidegoaren edo estatuaren arauketa bateragarrian ezarritako arauhausteetatik edozeinekin zerikusia dutenak, edo esanahi antzekoak dutenak, bai eta horiek eragindako kalteak saihesteko edo halakoak arintzeko, ikuskatzaileak kautela-moduan merkatugaiak, produktuak, ontziak, etiketak, etab. ibilgetu egingo ditu. Kasuan kasuko aktan adostutako kautela-neurria eragin duten xedea nahiz zioak jaso dira.*
2. *Kautela-neurriaren xede den ibilgetzea ezin izango da luzatu kasu zehatzean jasotako kautela-xedeak betetzeko ezinbestekoaz denaz haraindi. Hori dela eta, ikuskatzaileek adostutako kautela-neurriak zehapen-prozedura egokia abian jartzeko organo eskudunak 15 egun baino epe laburragoan baieztatu, aldatu edo kendu beharko ditu. Bada, prozedura hori abian jartzeko akordioan kautela-neurriei buruzko inolako adierazpenik jaso ez bada, horiek ondorerik gabe geratuko dira.*

Hala ere, egia da 42. artikulua horretan kautela-neurri bakarra jasoz dena, hots, ibilgetzea, eta aldi berean, horren ez-ohikotasuna eta behin-behinekotasuna jaso dira.

4. *Nekazaritzako produktu galgarriak 15 eguneko epean galdu daitezke. Ondorenez, paragrafoa ezabatzen bada, produktu horien kasuan 4 eguneko epea gorde beharko da.*

Bigarren artikulua

Bigarren artikulua.- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 59.4 artikulua. Kalitatearen eta jatorriaren bereizgarriak.

Artikulu horretan jasotako okerraren berri eman nahi dugu. Izatez, Kalitatearen eta jatorriaren bereizgarriak esaten duen tokian, 17/2008 Legearen arabera, Eskubideak eta betebeharrak esan beharko luke.

Laugarren artikulua

Zioen Azalpenean jasotako edukian ezarritakoarekin bat etorritz, hau da, arrazoizko epea luzatzeko aukerarekin, eta ez, ordea, bestelako xedapeanean ezarritakora ez egokitzeko aukerarekin, Legearen aurreproiektuaren laugarren artikulua ezabatzeko proposamena egin dugu, edo epea hamabost eguneko epea baino laburragoa murrizteko proposamena, nekazaritzako produktu galgarriak 15 eguneko epean galdu daitezkeela kontuan izanda. Ondorenez, ondoko idazketa proposatu dugu:

2/11 

Laugarren artikulua.- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 102. artikuluen 5 eta 7. artikulua. Ikuskapena.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 102. artikuluen 5 eta 7. artikulua aldatzea, ondoko idazketarekin:

“5.- kuskatzaileek adostutako kautela-neurriak zehapen-espeditate egokia abian jartzeko organo eskudunak lau/zortzi egun (lau egun nekazaritzako produktu galgarrien kasuan) baino epe laburragoan baieztatu, aldatu edo kendu beharko ditu. Neurriak ondorerik gabe geratuko dira espeditate-irekieran horiei buruzko adierazpen zehatzik jasotzen ez bada.

“7.- Zehapen-prozedura abian jartzeko egintzan, zehapen-ahalaren gaineko organo titularrak neurri horiei zioen bidez eutsi, horiek ukatu edo aldatu beharko ditu, eta halakoak lau/zortzi eguneko (lau egun nekazaritzako produktu galgarriak) epean azkenduta geratuko dira, horiek ezartzen direnetik zenbatuta, espeditate egokia abian jarri gabe”.

Bosgarren artikulua

1. Lehenbizi, gure ustez komenigarria da 106. artikulua (*Elikagaigintzaren arau-haustea*) lehenengo paragrafoa kontuan izatea, ondokoa jasota: “Arau-hauste administratiiboak izango dira...” *lege-xedapenak* ezabatuta, eta hori arau-hausteen tipifikazioa Lege mailako arauaren bidez bakarrik ezartzeko.
2. Bigarrenez, etiketei buruzko 2.2.4 atalaren 5. azpiatalean ondoko esaldia gehitzeko proposamena egin dugu: “*Nolanahi ere, eskuratutako emaitza analitikoek begira onartutako lege-tolerantziak kontuan izan beharko dira*”. Hori dela medio, eskuratutako emaitza analitikoek begira onartutako lege-tolerantziak kontuan izateko ahaleginak egiten ari gara, legeriak ahalbidetzen duen alderdia.
3. Hirugarrenez, 3.4 puntuan (Bestelako arau-hauste larriak), ondokoa gehitu beharko litzateke:
 - 5. puntua, hau adierazita “*5.- Amaitutako produktuen eraketa eta/edo merkaturatzea, animalia-elikagaigintzaren langile gisa alta eman gabe badago. (pentsuen sektoreari begira bereziki)*”, animalia-elikagaigintzaren esparruan alta eman gabeko eragileen esku-hartzea saihesti ahal izateko.
 - Aurreko bost paragrafoen amaieran, *kasuetatik edozein delitua edo falta izan daitekeenean salbu* esaldia, artikulua honetan jadanik jasotakoez bestekoak modu analogoan arautzeko, tipifikatutako arau-hausteen eta delituaren edo faltaren arteko muga garbia ez denean.

Beraz, arauketa-testua modu honetan geratu da:

Bosgarren artikulua.- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 106. artikulua. Elikagaigintzaren arau-haustea.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008

Legearen 106. artikulua modu honetan idatzita geratuko da:

"106. artikulua.- Elikagaigintzaren arau-haustekak.

Elikagaigintzaren eta elikagaigintzaren gaineko kontrolaren inguruko arau-hauste administratiboak izango dira Lege honetan edo nekazaritza- eta elikagaigintza-ekoizpenaren kalitatearen defentsan aplikatu beharreko bestelakoetan lege-xedapenetan tipifikatutako edozein egite edo ez-egite. Ardoaren eta mahatsaren eta ardoaren ondoriozko produktuak Lege honetan araututako arau-hausteen eta zehapenen araubidetik kanpo geratu dira, erkidegoaren, estatuaren eta autonomiaren arauketa zehatzean jasotako edukia aplikatuta.

...

2.2 Etiketak

1.- Etiketarik, errotulurik, aurkezpenik, paketatzerik edo ontzirik gabeko produktuen edo gaien merkaturatzea, baldin eta horiek aginduzkoak bada, edo horren informazioak jasotzaileengan iruzurra eragiten badu.

4.- Elikagaiak ekoitzi eta merkaturatzeko elikagaigintza-produktuen edo gaien eta osagaien etiketetan, ontzietan, paketatzeetan, aurkezpenean, eskaintzan eta publizitatean, aipamenak, sozietateen izenak, merkataritzako izenak, adierazpenak, zeinuak, markak, ikurrak, enblemak, izendapenak, izenak, kalifikazioak, produktu-motak, jatorriaren adierazpenak, ekoizpen- edo eraketa-sistemaren aipamenak, etab. erabili beharko dira.

- 1. Ez dagozkio produktuari eta/edo, antzekotasun fonetikoak, grafikoa edo ortografikoa dela eta, nahasketa eragin dezaketinak, antzeko bestelako mota, estilo, genero, antzeratze edo ordezkoko baldintzak izan arren, eta/edo*
- 2. langilearen benetako nortasunari ez badagozkio, eta/edo*
- 3. benetako ekoizpen-, fabrikazio-, eraketa-, ontziratze-, merkaturatze- edo banaketa-tokiari ez badagozkio, eta/edo*

4. egiaztatu ezin badira.

Aurreko guztia ulertuko da arau-hauste larria izan denean izan ezik.

5.- *Elikagaiak ekoitzi eta merkaturatzeko elikagaien edo gaien eta osagaien ezaugarrietan gertatutako iruzurrak, bereziki, ondoko puntuei lotuta: nortasuna, izaera, espeziea, eraketa, edukia, izendapena, arauzko definizioa, kalitatea, aberastasuna, pisua, bolumena edo kopurua, gehiegizko hezetasuna, printzipio erabilgarrien edukia, erabilerarako ahalmena, edo elikagaigintza-produktuaren benetako ezaugarrien eta elikagai-arloko langileak eskaintzen dituenen arteko kontraesan oro. “Nolanahi ere, eskuratutako emaitza analitikoari begira onartutako lege-tolerantziak kontuan izan beharko dira”.*

2/11 *i*

2.3.-. Ikuskapena.

...

3.4. Bestelako arau-hauste larriak:

1.- *Gaia edo halakoak egin, estali edo ezkutatzeko osagaiak jaso dituzten hirugarrenek egin ditzaketen aldaketen, aizuntzeen, faltsutzeen edo iruzurren ondoriozko arau-hausteak.*

2 -*Osorik edo zati batean osasun-arloko arauketan jasotako arau-hauste larriekin bat egiten duten arau-hausteak, edo halakoak ahalbidetu edo estaltzeko erabilitakoak.*

3.-*Praktiken, tratamenduen edo prozesuen bidez pertsonengan, animaliangen edo ingurumenaren gain arriskua eragin dezaketen nekazaritzako produktuen eraketa, eraldaketa edo merkaturatzea.*

4.- *Elikagaiak egiteko baimendu gabeko makinaren, instalazioen edo produktuen edukitza, halakoak egiteko industriaren edo ontziratzearen industriaren lokaletan, betiere pertsonengan, animaliangen eta ingurumenaren gain arriskua eragiten badute.*

5.- Amaitutako produktuen eraketa eta/edo merkaturatzea, animalia-elikagaigintzaren langile gisa alta eman gabe badago (pentsuen sektoreari begira bereziki).

Kasuetatik edozein delitua edo falta izan daitekeenean salbu.

Idazketa-okerrak ongitzeko oharrak

1. Zioen Azalpenean, 1. orrialdean, azken paragrafoan, ondokoa adierazi da: "...baita ardogintzaren eta mahastizaintzaren esparruan ere, Ardogintzaren eta Mahastizaintzaren Antolamendurako 7ko 5/2004 Legearen 42.2 artikuluari helduta, hau esateko proposamena egin dugu: "...baita ardogintzaren eta mahastizaintzaren esparruan ere, Ardogintzaren eta Mahastizaintzaren Antolamendurako *maiatzaren* 7ko 5/2004 Legearen 42.2 artikuluari helduta".

2. Bosgarren artikuluan, 106. artikuluari buruzkoan, 1.1. atalaren 4, azpiatalean "diren" ezabatu behar da.

4.- Trazabilitate-erregistroen dokumentazioa, izate-partiak eta mugimendu-partiak, merkataritza-agiriak, edo nekazaritza- eta elikagai-gintza-produktuaren trazabilitatearen jarraipena egiteko langileentzat diren aginduzkoak diren agiriak gaurkotzeko gabezia, hilabeteko epea igaro ez bada halakoa egiteko datatik zenbatuta.

3. Bosgarren artikuluan, 106. artikuluari buruzkoan, 1.1. atalaren 6, azpiatalean zehaztutakoak hitzaren ordean ezarritakoak adierazteko proposamena egin dugu.

6.- ezarritako epeen barruan ez aurkeztea elikagaigintzaren arauketan jasotako aitorpenak edo akatsekin aurkeztea, hutsegite, oker edo ez-adierazte horiek produktuen izaeraren, nortasunaren, kalitatearen, ezaugarrien, eraketaren edo jatorriaren gain eraginik ez badute.

4. Bosgarren artikuluan, 106. artikuluari buruzkoan, 1.2. atalaren 2, azpiatalean "badu" ezabatu behar da.

2.- Nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuen jasotzaileei edo erabiltzaileei benetako informaziorik edo informazio objektiboa, osoa eta ulergarririk gabea ematea, betiere informazioak etiketen arauketa orokorrean derrigortzat jotakoari borondatez badu gehitutako adituen informazioaren gain eragina badu.

5. Bosgarren artikuluan, 106. artikuluari buruzkoan, 1,2. atalaren 4, azpiatalean “**duena**” gehitu behar da.

4.- Elikagaiak ekoitzi eta merkaturatzeko elikagaigintza-produktuaren benetako ezaugarrien eta elikagai-arloko langileak eskaintzen dituenen arteko kontraesana, aplikatu beharreko arauaren bidez mugatutako parametroen edo osagaien edukiari begira, betiere bertan ezarritako tolerantzia gainditu gabe, eta produktuaren izaeraren, nortasunaren, definizioaren, arauketaren, kalitatearen edo izendapenaren gain eraginik ez duena.

6. Bosgarren artikuluan, 106. artikuluari buruzkoan, 1,2. atalaren 5, azpiatalean “**halakoa**” ezabatu behar da.

*5.- Nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorearen ekoizleen erreklamazioen erregistro- eta tratamendu-sistematik ez izatea, eta bat ez datozen produktuen ezabaketa-sistematik ez izatea, arauketan **halakoa** jardueraren arabera ezarri bada.*

IV. ONDORIOAK

Euskal EGABren ustez, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren Legearen Aldaketarako Legearen Aurreproiektuari buruzko izapidetza egokia da, organo aholku-emaile horrek egindako oharrekin batera.

Bilbon, 2011ko otsailaren 28an

Batzordeburuaren OE
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



Consejo Económico
y Social Vasco

Euzkoak: Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbo, Bizkaia
www.cekvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarros Comunicación

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-565-2011